

UPV/EHUKO IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN BEHIN-BEHINEKO ESKAEREN ZERRENDA (2016)

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren 2015eko apirilaren 30eko onespenerekin, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak: UPV/EHUKO IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2016 argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak haien azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzeko asmoz:

- a) Ikerlari nagusi eta kideek baldintzak betetzen dituztela.
- b) Deialdian zehaztutako dokumentazio osoa helarazi izana.

Egiaztatze honen arabera,

ERABAKI DA, onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda Ikerketaren Arloko Errektoreordetza web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun baliouduneko epea izango dute, **2016eko uztailaren 19tik 30era arte (barne)**, aipatzen diren aldaketak egiteko. Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.

Zuzenketak UPV/EHUKo Erregistro Orokorrean (Bizkaiko campusa), Araba eta Gipuzkoako campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Bateratuari buruzko Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira

Era berean, baztertutako ikertzailereren bat duten ikerlari nagusiek (2 kodea) edo eskaera osorik zuzendu behar dutenek, igz.deialdiak@ehu.eus helbide elektronikora bidali beharko dute "Eskaera" agiria, PDF artxibo batean, taldekideen zerrenda zuzenarekin.

Era berean, UPV/EHUren ikerketarako laguntzen deialdiko ikerketa proiektu aktiboiei edo Euskal Unibertsitate Sistemako ikertalde batei (finkatueta) erreferentzia egiten dien deialdiaren 3.5 Oinarria betetze aldera, jakinarazten da emateko ebazpena publikatu aurretik ikertaldeko kideen bateraezintasunak berriz aztertuko direla. Ikertzaile bakoitzari aldi berean emandako ikertalde edo proiektuaren artean hautatzeko aukera eskainiko zaie, beti ere, deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarritako gutxieneko taldeen baldintzak betetzen direla egiaztatuz.

Leioan, 2016eko uztailaren 18an.